



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: KARRIKA

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2022-10-03	19:00	20:15

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Agustin Lekuona, Enekoitz Markos eta Olaia Lasa			
Herritarrek:	Euskaraz: 7		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 2		Gizonezkoak: 5	
	<30 urte: 1	31-50 urte: 2	51-65 urte: 3	>66 urte: 1

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Agustinek aurkezpeneren sarrera txiki bat egin du.
Legealdiaren balorazioa	Agustinek legealdian aurrera eramandako proiektuen berri eman die auzotarrei.
2023eko aurreikuspena	Agustinek 2023ko aurrekontuak aurkeztu ditu.
Auzoa	Auzotarrek interesa azaldu dute ea proiekturik ba ote dagoen Auzoan egin daitezkeen bi etxebizitza horiek eraikitzeko. Presondoko horretan karretera oso estua dela dio auzotar batek eta azkenean zerbait pasako dela, ez da ongi ikusten eta arriskutsu dago. Soluzio gutxi du leku horrek, izan ere alde batera erreka dauka eta beste aldera etxea. Sarrera ere arriskutsu xamar dagoela aipatzen dute, askotan baloratu da eta egia da aukera gutxi ematen dituela eremuak gauzak egiteko. Herritarren ardura da seinalizazioak eta arauak betetzea. Etxe artean egindako antolamendua oso ongi geratu da, txukun. Baratxitxon mahaiak eta jartzen badira kanpoko jende gehiago erakarriko du. Udara honetan ere jende pila ibili da eta edozein txokotan aparkatzen zuten.



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	Frontoiaren estalkiari dagokionean aipatzen da frontoiaren terreno guztia ez udalarena, zati bat elkartearena dela eta ikusi beharko dela nola burutu behar den. Auzotarren ustetan elkartearentzat ere ona da frontoia estaltzea. 2023rako ez da aurreikusten, proiektua egingo da baina gauzatu aurrerago. Auzoak asko irabaziko luke estalki horrekin auzotarren iritiziz. Errotako zubia oso gaizki geratu dela aipatzen da, bi aldeetara puska kendu beharko litzakeela, bestela ur asko datorrenean errekek arazoak ematen ditu. Guztia zubiaren kontra joan eta bertan geratzen da. Udalak baloratzeko konpromezua hartu du. Mantenu lanei dagokionean espaloia dago berritzeke, ez baitago egoera onean. Gaur egun ez da batere espaloia egokia, estua da eta baldosekin estropozu egiten duzu, haurren karroekin joateko ere oso deserosoa da. Berritzerako garaian aukera dagoen eremuetan zabaltzea izango litzake asmoa, baina leku batzuetan ezin izango da. Trenbidearen (xorrola bidea) garbi lanak zeinen ardura den galdetzen dute auzotarrek. Berez diputazioaren ardura da, baina auzotarrek gaizki ikusiko balute eskertuko luke udalak argazkiak bidaltzea udaletik ere diputazioari aipatu ahal izateko. Badirudi horko lur batzuk pribatuak direla. Auzoan jarri den plakaren inguruan galdetu dute, plaka hori Oiartzun herriaren erdigunea delako jarri da. Oihanlekun arbolak erdi eroriak eta oso gaizki daude eta desgraziaren bat pasako dela dio auzotar batek. Zuhaitzak erein, handitzean moztu eta berriz ere erein egin behar direla aipatzen da.
--	---

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,14
bilera ongi gidatu da	9,29
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,86
Auzotar kopurua	2,57
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	5,86
Saioa probetxugarria izan al da?	9
Egunaren egokitasuna	9,14



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



Orduaren egokitasuna	8,86
Lekuaren egokitasuna	9,14